



LANBIDE
HEZIKETAKO ZIKLOEN
PROGRAMAZIOA

PROGRAMACIÓN
DE LOS CICLOS FORMATIVOS
DE FORMACIÓN PROFESIONAL



GARRAIOA ETA
IBILGAILUAK
MANTENTZEA

AUTOMOZIO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

**4. modulua: Egiturazkoak ez Diren
Elementu Mugigarriak eta Finkoak**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

LANBIDE
HEZIKETAKO ZIKLOEN
PROGRAMAZIOA

PROGRAMACIÓN
DE LOS CICLOS FORMATIVOS
DE FORMACIÓN PROFESIONAL



GARRAIOA ETA
IBILGAILUEN MANTENTZE
LANAK

AUTOMOZIOKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA

4. modulua: Egiturazkoak ez Diren Elementu Mugigarriak eta Finkoak

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
Lanbide Heziketako eta Etengabeko
Ikaskuntzako Sailburuordetza



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
Viceconsejería de Formación Profesional
y Aprendizaje Permanente

Argitalpena: 1.a, 2010eko apirila

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Egilea: Iokin Unanue Imaz

Edizioa eta koordinazioa: Víctor Marijuán Marijuán
KOALIFIKAZIOEN ETA LANBIDE HEZIKETAREN EUSKAL INSTITUTOA
INSTITUTO VASCO DE CUALIFICACIONES Y FORMACIÓN PROFESIONAL
www.kei-ivac.com



Diseinua eta maketazioa: TRESDETRES

Lege-gordailua: BI-384/2010



Orduak: 231
Unitate kopurua: 8

Esku artean duzun argitalpen hau lanean ari diren lankideek landu dute.

Edozein gairen programazioa oso lan pertsonala da, irakasle bakoitzaren esperientzian oinarritua eta, horrenbestez, subjektiboa. Premisa hori kontuan izanik, programazioa aztertzea eta egoki baderitzozu kontsultarako material gisa erabiltzea gonbidatzen zaitugu. Zure irakasle-lana bideratu dezakeen gida gisa ere baliagarria izan dakizuke.

Izan ditzakeen mugak aintzat hartu badira ere, heziketa-ziklo berrien OCDak abiapuntu izanik sortu eta diseinatu da, eta EAEn curriculum-diseinuaren eta irakaskuntza-programazioaren arloan indarrean dagoen legeria hartu da kontuan (otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua).

Erabilgarria izan dakizun espero dugu, eta, aldi berean, egileek lan honetan egindako ahalegina eskertzen dugu.

AURKIBIDEA

UD-EN SEKUENTZIAZIOA ETA DENBORALIZAZIOA	05. or.
0 0. unitate didaktikoa: Moduluaren aurkezpena	06. or.
1 1. unitate didaktikoa: Lotura mugigarriak desmuntatu eta muntatzea	09. or.
2 2. unitate didaktikoa: Mekanizazio-teknikak	13. or.
3 3. unitate didaktikoa: Elementu metalikoak konformatzea	17. or.
4 4. unitate didaktikoa: Elementu metalikoak soldatzea	21. or.
5 5. unitate didaktikoa: Elementu sintetikoak konpondu eta konformatzea	24. or.
6 6. unitate didaktikoa: Beirak ordezkatu eta konpontzea	28. or.
7 7. unitate didaktikoa: Elementu finkoak desmuntatu, konpondu eta muntatzea	31. or.
8 8. unitate didaktikoa: Hautazko transformazioetarako proiektuak diseinatzea	35. or.



Unitate didaktikoen sekuentziazioa eta denboralizazioa

EDUKI MULTZOAK						UNITATE DIDAKTIKO SEKUENTZIATUAK	IRAUPENA
M1	M2	M3	M4	M5	M6		
						UD0: Moduluaren aurkezpena.	1 h
X	X	X				UD1: Lotura mugigarriak desmuntatu eta muntatzea.	10 h
X	X					UD2: Mekanizazio-teknikak.	25 h
			X			UD3: Elementu metalikoak konformatzea.	50 h
				X		UD4: Elementu metalikoak soldatzea.	39 h
			X	X		UD5: Elementu sintetikoak konpondu eta konformatzea.	25 h
				X		UD6: Beirak ordezkatu eta konpontzea.	10 h
				X		UD7: Elementu finkoak desmuntatu, konpondu eta muntatzea.	50 h
					X	UD8: Hautazko transformazioetarako proiektuak diseinatzea.	21 h
GUZTIRA							231 h

1. multzoa: Piezen eta tresneriaren irudikapen grafikoa.
2. multzoa: Oinarrizko mekanizazio-eragiketak.
3. multzoa: Elementu mugigarriak, osagarriak eta jantziak ordezkatzeko.
4. multzoa: Deformazioak identifikatzea eta konponketa-metodoa hautatzea.
5. multzoa: Elementu finkoak ordezkatzeko.
6. multzoa: Hautazko transformazioak egiteko eta tresna txikiak diseinatzeko eraikuntza-soluzioak garatzea.



0. unitate didaktikoa: MODULUAREN AURKEZPENA							Iraupena: 1 ordu								
Ikaskuntzaren helburuak:															
<ol style="list-style-type: none"> 1. Moduluren garapenaren plangintza orokorra ezagutzea, baita taldekideak ere. 2. Irakasleak prestakuntza-prozesuaren kudeaketan aintzat hartu eta aplikatuko dituen irizpideak ulertzea. 3. Ikasleak moduluari dagokionez dituen eskubideak eta betebeharrak identifikatzea. 4. Moduluren unitate didaktikoen arteko eta moduluren eta beste moduluen arteko lotura nagusiak ulertzea. 5. Norberaren jakintzak identifikatzea, moduluan lortu behar diren jakintzei dagokienez. 															
EDUKIAK										Multzoak					
										1	2	3	4	5	6
PROZEDURAZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> • Zikloko moduluen arteko eta zikloaren eta erreferente dituen kualifikazioen arteko loturak aztertzea. • Diziplinaren, metodologiaren, erlazioen eta antzeko beste gaien inguruan planteatzen diren alderdiak, arauak eta elementuak identifikatzea, eta euskarri egokian erregistratzea. 													
KONTZEPTUZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> • Zikloa osatzen duten kualifikazioak eta moduluarekiko lotura. • Moduluren ekarpena zikloko helburuak lortzeko garaian. • Moduluren helburuak. • Modulua eta unitate didaktikoak ebaluatzeko irizpideak. 													
JARRERAZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> • Taldeko kide guztiengan, baita irakaslearengan ere, desiragarriak diren portaeren inguruan adostasuna lortzearen garrantzia baloratzea. • Moduluren garapenean jarraitu beharreko arauak eta irizpideak. 													
JARDUERA					METODOLOGIA						BALIABIDEAK				
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota		Helburu inplikat.	D.	NORK		NOLA egingo den			ZERTARAKO egingo den			ZEREKIN egingo den			
				Ir.	Ik.										
J1. Ikasleen eta irakaslearen aurkezpena.		1	10 min	X	X	Irakasleak eta ikasleak nork bere burua aurkeztuko dute. Irakasleak iradokiko ditu aurkezpenean interesgarriak izan daitezkeen alderdiak, eta informazio bat edo bestea ematea hautazkoa izango da.			Helburua da hasierako ezagutza lortzea eta gizarte-oztopoak haustea, taldeko kideen arteko komunikazioa erraztearren. Aurreko ikasturteetik sortutako taldea denean, ez da jarduera hau beharrezkoa			Ez da bitarteko berezirik behar.			



						izango.	
J2. Programazioa osatzen duten elementuen aurkezpena.	2-4	10 min	X	X	Irakasleak programazioa osatzen duten elementuak, ordutegiak eta abar aurkeztuko ditu, eta, horretarako, eskema bat erabiliko du edo baliabide informatiko bidezko aurkezpena egingo du.	Ikasleek moduluaren gaiaren programazioari, egiturari, loturei, denborari eta iraupenei buruzko ikuspegi orokorra jaso beharko dute, besteak beste.	Arbela. PowerPoint-en egindako aurkezpena edo antzekoa. Kronogramak. Informazioa duten fotokopiak.
J3. Prestakuntza-prozesuaren kudeaketa gidatuko duten irizpideen eta arauen aurkezpena.	2-3	10 min	X	X	Irakatsi eta ikasteko prozesua kudeatzeko erabiliko diren askotariko irizpideak ezagutaraziko ditu irakasleak. Gardenez edo beste elementu batzuek lagundutako ahozko azalpena erabiliko du. Hortaz, azterketak zuzentzeko eta ebaluatzeko irizpideak, barne-erregimeneko araudia, diziplina-erantzukizunak, eta abar azalduko ditu. Zalantza guztiak argitzeko denbora-tartea zabalduko da.	Horrela, ikasleek ikasketak, gizarte eta harremanen arloko esparrua ezagutu eta ulertuko dute, eta arauzko esparru horretara moldatu ahal izango dute haien jarduna.	Ikasgelan edo lantegi-ikasgelan egin daiteke jarduerak, eta ez da baliabide berezirik behar.
J4-E1. Egin beharreko lanbide-moduluaren gainean ikasleek aurretik dituzten jakintzen identifikazioa.	5	30 min	X	X	Jarduera hori elkarrizketaren bidez garatu ahal izango da, baita ikasleek erantzun beharreko irakaslearen galderen bidez, edo, bestela, ondorio horretarako prestatutako galdera irekien bidez edo erantzun anitzeko galderak dituen galdera sorta baten bidez.	Moduluan garatuko diren edukiei dagokienez, ikasleen abiapuntuko jakintza-maila ezagutu nahi da. Abiapuntuko jakintza hori ezagutzeak programazioa berregituratzeko eta taldearen eta gizabanakoen errealitateari egokitzeko aukera emango dio irakasleari.	Galdera sortak.

OHARRAK

- Nahikoa izango da J1 jarduerak moduluaren batean egitea. Zikloko taldeak adostu beharko du zein modulutan egingo den.
- J4 jarduerak mantendu ahal izango dira, nahiz eta unitate didaktikoetako bakoitzean hasierako ebaluazioa barnean hartzen duen jarduerak egin. Bi jarduerak horiek bateragarriak eta osagarriak izango dira beti. Aurretiazko jakintzetarako lehen hurbilketa izan daiteke, ondoren, unitate bakoitzean abiapuntuko jakintza horretan gehiago sakontzeko.
- Modulu honen unitate didaktikoetan, jarduerak irakatsi eta ikastekoak (J) edo ebaluazioak (E) izan daitezke. Zenbaitetan, jarduerak bera, irakatsi eta ikastekoak ez ezik, ebaluazioak ere izan daitezke. Halakoetan, jarduerak hori (Jn-Em) gisa adieraziko da eta hiru motak bilduko ditu. J-en zenbakizkoak (n) eta E-ena (m) elkarrekiko independenteak dira.



1. unitate didaktikoa: LOTURA MUGIGARRIAK DESMUNTATU ETA MUNTATZEA Iraupena: 10 ordu

IE1: Piezen eta tresneriaren krokisak marrazten ditu, eta dokumentazio teknikoan jasotako informazioa eta ezarritako normalizazioa hautatzen du.
IE2: Oinarrizko mekanizazio-eragiketak zehazten ditu eta, horretarako, haiek identifikatzen dituzten parametroak interpretatzen ditu.
IE3: Elementu mugagarriak, osagarriak eta jantziak ordezkatzeko teknika eta prozesuak interpretatzen ditu.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Irudikapen grafikoko sistemak antzematea, eta eskuliburu teknikoetan agertzen diren krokisak eta marrazkiak interpretatzea.
2. Lotura mugigarri bat desmuntatu edo muntatzeko egin beharreko mekanizazio-eragiketen sekuentzia zehaztea, eta beharrezko erremintak, makinak eta tresnak hautatzea.
3. Beharrezko esku-hartzeak zehazteko diagnostiko-teknikak aplikatzea.
4. Lotu eta mihiztatzeko elementuak (torlojuak, errematxeak, lekedak, masillak eta grapak) desmuntatu eta muntatu beharreko elementuekin erlazionatzea.
5. Dokumentazio teknikoa interpretatzea, eta horren sinbologia ordezkatu beharreko elementuen loturarekin erlazionatzea.
6. Ordezkatu beharreko elementu mugagarriak, osagarriak eta jantziak identifikatzea, eta erabili beharreko erremintak eta tresnak hautatzea.
7. Lotura-elementuak mihiztatzeko parametroen kalkuluak egitea.
8. Lotura zehazten duten parametroak finkatu ondoren, elementu mugagarriak desmuntatu eta muntatzea, horretarako prozedura egokiak aplikatuta.
9. Elementu osagarriak eta jantziak ezarritako metodoaren arabera ordezkatzeko.
10. Egindako lanek konpondu edo ordezkaturako elementuen funtzionaltasuna eta mihiztatzeko-ezaugarriak leheneratzen dituztela egiaztatzea.
11. Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko arauak betetzea.

EDUKIAK		Multzoak					
		1	2	3	4	5	6
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Ibilgailuaren eta loturaren dokumentazio teknikoa interpretatzea. • Erremintak eta tresnak prestatu eta doitzea. • Erabilitako produktuen fitxa teknikoak eta segurtasunekoak interpretatu eta erabiltzea. • Elementu mugagarrien, tapizatuen eta jantzien loturak desmuntatu eta muntatzeko lanak prestatu eta egitea. • Muntaia edo lotura egiaztatzea. • Lanpostua, eta erabilitako piezak, tresnak eta erremintak garbitzea. 			X X X X X X			
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Irudikapen-sistemak. Krokisak egitea. • Euskarriak eta osagarriak irudikatzea. • Metrologiaren oinarriak: neurketa-sistemak (metrikoa eta anglosaxoia), magnitudeak, unitateak eta neurketen bihurketa. • Neurketa-ekipoak: kalibrea, mikrometroa, konparadorea, goniometroa, etab. • Automobilean gehien erabiltzen diren material metalikoen ezaugarriak (burdinurtu, altzairu, aluminio-aleazio eta abarrenak). 	X X		X			X



	<ul style="list-style-type: none"> • Hari-sistemak. • Ibilgailuetan erabiltzen diren torlojuak: torloju motak, ezaugarriak, hari-neurriak, torloju zehazten duten elementuak, balaztak, xafla-hariko torlojuetarako zulatzeko makina. • Grapak: motak, euste-sistemak. Grapak kentzeko teknikak eta horretarako tresnak. • Lekeda, masillak eta itsasgarriak: motak, ezaugarriak, erabilera, prestaketa, katalizatzailak, aktibatzaileak eta errektiboak. Elementu mugigarri itsatsiak desmuntatu eta muntatzeko teknikak eta prozedurak. • Errematxeak: motak, erabilerak eta errematxatze-prozesua. • Elementu mugigarriak, tapizatuak eta jantziak muntatu eta desmuntatzeko prozesuak. • Prozesuekin lotutako segurtasunari eta ingurumenari buruzko arauak. 						X			
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Arreta erabilitako erremintak, tresnak eta makinak kontserbatzean. • Eragiketak egiteko doitasuna. • Lanak egiteko ezarritako epeekiko konpromisoa. 						X			
JARDUERA					METODOLOGIA			BALIABIDEAK		
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den			
			Ir.	Ik.						
J1. Azalpena, karrozeria motak sailkatzeari buruzkoa. Horien eta beren osagaien osaera, eginkizuna eta egitura.	4-6	2 h	X		Hitzezko azalpen baten bidez, ikus-entzunezko egungo baliabideekin osatuta, irakasleak kontzeptuak eta oinarri teorikoak ezagutzera emango ditu. Sarritan, ikasleak eztabaida batean inplikatzeko bilatuko du. Eztabaida berak piztuko du zuzeneko galderen bidez.	Karrozeria moten buruzko kontzeptu orokorrak ezagutzeko. Ikasleen lehen ezaupidea da karrozeriaren munduan.	Teoria-eskoletarako gela. Irakasleak berriaz prestatutako ikasmateria: liburuak, fotokopiak, DVDak, VHS bideoak, Internet, etab.			



<p>J2. Azalpena, lotura mota bakoitzari buruzko kontzeptuen ingurukoa. Horien osagaiak. Aztertea eta lotura egokia hautatzea. Beharrezko metodoak eta baliabideak prestatu eta hautatzea.</p>	<p>1-2-3-4-5-6</p>	<p>2 h</p>	<p>X</p>		<p>Hitzeko azalpen baten bidez, ikus-entzunezko egungo baliabideekin osatuta, irakasleak kontzeptuak eta oinarri teorikoak ezagutzera emango ditu.</p> <p>Sarritan, ikasleak eztabaida batean inplikatzeko bilatuko du. Eztabaida berak piztuko du zuzeneko galderen bidez.</p>	<p>Egungo ibilgailuen karrozerietan topatuko dituzten lotura motak konpontzeko metodoak eta kontzeptuak ezagutzeko.</p>	<p>Teoria-eskoletarako gela. Irakasleak berariaz prestatutako ikasmateria: liburuak, fotokopiak, DVDak, VHS bideoak, Internet, etab.</p>
<p>J3. Erakustaldia eta praktika gidatuak, ibilgailuen osagai mugigarriak desmuntatu, muntatu eta doitzekoak, hala nola: atepak, kapotak, ate altxagarriak, hegatsak, kolpe-leungailuak, etab.</p>	<p>7-8-9-10-11</p>	<p>2 h</p>	<p>X</p>		<p>Lantegian, irakasleak lotura torlojatu, grapatu, errematxatu eta itsatsien adibideak azalduko ditu.</p> <p>Era berean, karrozeriaren osagai bat doitzeko du eta gainerako osagaiak doitzeko jarraibideak emango ditu.</p>	<p>Konponketa mota hauetan eman beharrezko urratsak ezagutzeko, eta aipatutako konponketak gauzatzeko berariazko erremintak eta tresnak nola erabili behar diren jakiteko.</p>	<p>Lantegian dauden ekipoak eta makineria, ibilgailu bakoitzaren dokumentazio teknikoaz gain.</p>
<p>J4-E1. Praktika autonomoak, ibilgailuen osagai mugigarriak desmuntatu, muntatu eta doitzekoak, hala nola: atepak, kapotak, ate altxagarriak, hegatsak, kolpe-leungailuak, etab.</p>	<p>7-8-9-10-11</p>	<p>4 h</p>		<p>X</p>	<p>Ikasleek ibilgailuaren osagai mugigarriak desmuntatu, muntatu eta doitzeko praktikak egingo dituzte. Praktika horiek irakasleak aurretik diseinatu behar ditu errazentetik zailenera sekuentziatuta.</p>	<p>Gaiaren inguruan ikasgelan eskuratutako kontzeptuak zerrendatu eta erabiltzeko, eta ibilgailuaren edozein elementu mugigarri behar bezala desmuntatu, muntatu eta doitzeko gai izateko.</p>	<p>Lantegian dauden ekipoak eta makineria, ibilgailu bakoitzaren dokumentazio teknikoaz gain.</p>
<p>E2. Ikasleen berariazko ebaluazio-jarduera, banaka egin beharrezko azterketa teorikoaren bidez.</p>	<p>2-3-5-6-7</p>	<p>0 h</p>		<p>X</p>	<p>Jarduera honen helburua da unitate honetan garatutako eduki teorikoak zein neurritaraino baneratu diren ebaluatzea.</p> <p>Ebaluazio hori ez da unitate honetan egingo (horregatik ez zaio denbora zehatz ba zuzendu). Ikasleen ezagupen horiek 2. eta 3. UDkoekin batera ebaluatuko dira.</p>	<p>Ikasle bakoitzak baneraturako ikaskuntza-maila eta irakaskuntzak kontrolatzeko.</p>	<p>Azterketako galdera sorta.</p>



OHARRAK

- J4 jarduera ahalik eta elementu gehienekin errepikatu behar da, ezarritako denboraren barruan, ikasleak gaitzeko eta ahal den trebetasun handiena lortzeko asmoz.



2. unitate didaktikoa: MEKANIZAZIOA TEKNIKAK Iraupena: 25 ordu

IE1: Piezen eta tresneriaren krokisak marrazten ditu, eta dokumentazio teknikoan jasotako informazioa eta ezarritako normalizazioa hautatzen du.

IE2: Oinarrizko mekanizazio-eragiketak zehazten ditu eta, horretarako, haiek identifikatzen dituzten parametroak interpretatzen ditu.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Irudikapen grafikoko sistemak ezagutzea.
2. Marrazketa teknikoan aplikatzen den araudia interpretatzea (formatuak, irudikapen-lerroak eta sinbologia, besteak beste).
3. Objektuaren neurriak hartzea hura irudikatzeko.
4. Krokisetan irudikatu beharreko ebakidurak eta sekzioak identifikatzea.
5. Planoetako bistak, sekzioak eta xehetasunak, eta dokumentazio teknikoa interpretatzea, eta horietan jasotako informazioa zehaztea.
6. Krokisaren bistak, sekzioak eta xehetasunak marraztea, sinbologia normalizatua aplikatuta.
7. Krokisaren neurriak egin beharreko piezak, elementuak edo transformazioak neurtzeko prozesuan lortutakoekin bat datozela egiaztatzea.
8. Oinarrizko mekanizazio-teknikak (karrakatzea, zerratzea, zulatzea, hariztatzea...), eta erabili beharreko erremintak eta ekipoa deskribatzea.
9. Egin behar diren eragiketen sekuentzia zehaztea, eta erremintak, makinak eta tresnak hautatzea.
10. Marraketa zehaztasunez gauzatzea pieza egiteko.
11. Zulatzeko makinetan parametroak doitzea, landu beharreko materiala eta zulatzeko makinaren diametroa kontuan izanda.
12. Piezak eskuz mekanizatzea karrakatu eta zerratze prozesuen bidez, eta krokisean zehaztutako gainazaleko akabera eta dimentsio-akabera lortzea.
13. Piezak barrutik eta kanpotik hariztatzea, eta, zulatzeko eta hagaxka hautatzeko garaian, egindako kalkulua kontuan hartzea.
14. Ibilgailuen fabrikazioan erabiltzen diren metalezko materialen (burdinurtua, altzairua eta aluminioa, besteak beste) ezaugarriak eta propietateak deskribatzea.
15. Piezaren edo eraikitako elementuaren amaierako dimentsioak eta neurriak krokisean zehaztutako kotetara egokitzen direla egiaztatzea.
16. Norberaren segurtasunari eta ingurumen-babesari buruzko arauak betetzen direla egiaztatzea.

EDUKIAK		Multzok					
		1	2	3	4	5	6
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Lantegian piezak gauzatzeko krokisak egitea. • Lanpostua prestatzea. 	X	X				



	<ul style="list-style-type: none"> • Planoak edo krokisak interpretatzea. • Erabili beharreko erremintak hautatzea. • Pieza trazatu eta ondoren mekanizatzea. • Piezaren dimentsioak eta eraginkortasuna egiaztatzea. 	X	X X X				
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Irudikapen-sistema. Krokisak egitea. • Normalizazioa (sinbologia, errotulazio-formatuak). • Euskarriak eta osagarriak irudikatzea. • Planoak normalizatzea. • Metrologiaren oinarriak: neurketa-sistemak (metrikoa eta anglosaxoia), magnitudeak, unitateak eta neurketen bihurketa. Neurketa-ekipoak: kalibrea, mikrometroa, konparadorea, goniometroa, etab. • Piezak marratu eta markatzea. Trazatzeko metodoak, tresnak eta erremintak. • Automobilean gehien erabiltzen diren material metalikoen ezaugarriak (burdinurtu, altzairu, aluminio-aleazio eta abarrenak). • Eskuzko mekanizazio-prozesuetan erabiltzen diren erremintak. • Karrakatu eta zerratzeko prozesuak. Karraka eta zerra motak: ezaugarriak eta erabilera. • Zulatzeko makinak eta kontuan hartu beharreko parametroak. Barauts motak eta horien zorroztea. • Zulatu eta abeilanatzeko prozesuak. • Torloju eta azkoin motak. • Hariztatze-parametroak. Harien geometria eta motak. Ezaugarriak eta aplikazio-eremua. • Hariztatze prozesuak: ekipoak eta erremintak. • Krokisak egiteko eragiketarako eta mekanizazio-prozesuetarako segurtasun- eta ingurumen-arauak. 	X X X X X X	X	X X X X X X X X X			
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Arreta erabilitako erremintak, tresnak eta makinak kontserbatzean. • Eragiketak egiteko doitasuna. • Lanak egiteko ezarritako epeetako konpromisoa. 		X X X				



JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den
			Ir.	Ik.			
J1. Azalpena, irudikapen grafikoko eta marrazketa teknikoko sistemei buruzkoa: bistak, sekzioak eta kotatzeak. Sinbologia eta normalizazioa. Planoen krokisak egiteko eta haiek normalizatzeko teknikak. Krokisak, planoak eta eskemak interpretatu eta egitea.	1-2-4-5-6	3 h	X	X	Irakasleak kontzeptuak azaldu eta planoak interpretatuko ditu gero eta zailtasun handiagoko sekuentzian, eta interpretazio hori ulertzeko zailtasun handienak dituzten ikasleekin berriro saiaturiko da.	Irudikapen grafikoko, marrazketa teknikoko eta normalizazioko sistemei buruzko kontzeptu orokorrak ezagutzeko, eta planoak eta krokisak interpretatzeko. Marrazketa teknikoko arauak errespetatuz pieza baten krokisa edo planoak egiteko gai izateko.	Teoria-eskoletarako gela. Irakasleak berriaz prestatutako ikasmateriala: liburuak, fotokopiak, DVDak, VHS bideoak, Internet, etab. Irudikapen grafikorako tresneria.
					Ondoren, ikasleek planoak eta krokisak egingo dituzte.		
J2. Azalpena, neurketa-sistema metrikoari eta anglosaxoiari buruzkoa. Erabiltzen diren neurgailuak, eta lanpostuan neurketa egiteko metodo zuzenaren erakustaldia. Neurketa egiteko jarrera eta modu egokiak.	3-7-15	2 h	X		Irakasleak sistema metrikoari eta anglosaxoiari buruzko kontzeptuak azalduko ditu, eta neurketa egiteko garaian neurgailuak nola erabili behar diren erakutsiko du, horien irakurketa egoki interpretatzeko metodoaz gain.	Sistema metrikoan nahiz anglosaxoian, kasuak kasu neurgailu egokia hautatzeko, eta neurketa egoki, azkar eta zehatz egiteko gai izan daitezzen.	Teoria-eskoletarako gela. Irakasleak berriaz prestatutako ikasmateriala: liburuak, fotokopiak, DVDak, VHS bideoak, Internet, etab. Lantegiko neurgailuak.
J3. Azalpena eta kontzeptuen erakustaldia, oinarrizko mekanizazio-eragiketei (piezak marraztu eta markatzea, karrakatzea, zerratzea, zulatzea, abeilanatzea eta hariztatzea), eta automozioan gehien erabiltzen diren material, azkoin eta torlojuen buruzkoa.	8-9-10-11-12-13-14	5 h	X		Irakasleak oinarrizko mekanizazio-eragiketa hauei buruzko kontzeptuak azalduko ditu: piezak marraztu eta markatzea, karrakatzea, zerratzea, zulatzea, abeilanatzea eta hariztatzea. Azalpen horretan, automozioan gehien erabiltzen diren material, azkoin eta torloju moten buruzko argibideak sartzen joango da.	Lehen aipaturako mekanizazio-eragiketa bakoitzaren inguruko funtsak eta oinarrizko ezagupenak barneratzeko. Automozioan gehien erabiltzen diren material, azkoin eta torloju motak ezagutzeko eta horien artean bereizteko.	Teoria-eskoletarako gela. Irakasleak berriaz prestatutako ikasmateriala: liburuak, fotokopiak, DVDak, VHS bideoak, Internet, etab. Lantegiko neurgailuak.



J4-E1. Praktika autonomoa, mekanizatuko duten piezaren lantze-prozesua zehazteari buruzkoa (beharrezko eragiketak sekuentziatu eta azalduko dira).	9	3 h		X	Ikasleek piezaren lantze-prozesua zehatz-mehatz azalduko dute, eta, horretan, egin beharreko eragiketen sekuentziazioa, erabili beharreko makinak, tresnak eta erremintak, eta eragiketa bakoitzerako ebaketa-parametroak adieraziko ditu. Irakasleak burutu den prozesua gainbegiratu eta hura gauzatzea baimenduko du egoki irizten dionean.	Mekanizazio-eragiketa errazen bidez pieza bat mekanizatzeko lan-prozesu osoa zehazteko gai izan daitezten: eragiketak eskuzko erremintekin, eta zulatu, abeilanatu eta hariztatzeko eragiketak.	Teoria-eskoletarako gela. Irakasleak berariaz prestatutako ikasmateriala: liburuak, fotokopiak, DVDak, VHS bideoak, Internet, etab. Lantegiko neurgailuak.
J5-E2. Praktika autonomoa, lantegian pieza bat mekanizatzekoa, J4an diseinatutako lan-prozesuan deskribatutako eragiketen bidez.	10-11-12-13-15-16	12 h		X	Ikasleek aurretik eginga behar izan duten prozesuan deskribatutako mekanizazio-eragiketa guztiak egin beharko dituzte. Irakasleak arreta berezia jarri beharko du zulatzeko makinak erabiltzen dituzten unean, eta beharrezkotzat jotzen duen une bakoitzean esku hartuko du.	Mekanizazio-eragiketak egitean trebetasuna lortzeko, eta neurri handiagoetako hasierako pieza batetik abiatuta, segurtasun pertsonalari eta ingurumenari buruzko arauak beteta pieza erraz bat mekanizatzeko gai izan daitezten.	Metrologiako eta mekanizazioko erremintak eta tresnak. Eusteko banku eta mahai egokiak izango dituzten lantegiak. Zulatzeko makinak.
E3. Ikasleen berariazko ebaluazio-jarduera, banaka egin beharreko azterketa teorikoaren bidez.	1-2-4-5-6-8-9-14	0 h		X	Ikasleen ezagupen horiek UD1 eta UD3koekin batera ebaluatuko dira.	Ikasle bakoitzak barneratutako ikaskuntza-maila eta irakaskuntzak kontrolatzeko.	Kontrol-jarduerak egiteko behar adinako azalera izango duen gela. Azterketako galdera sorta.

OHARRAK

- Ikasleek, banaka, pieza osorik mekanizatuko dute eta ondoren irakasleak hura ebaluatuko du. Pieza horren krokisa egin edo, behinik behin, irakasleak ematen dion plano interpretatu beharko du. Piezaren lantze-prozesua egingo du, ondoren hura marratu eta mekanizatzeko. Pieza ebaluatzean, besteak beste alderdi hauek kontuan izango dira: dimentsio- eta azalera-egokitzapena, eragiketak egiten emandako denbora, erabilitako erremintak eta tresnak arretaz kontserbatzea, lanpostuaren garbitasuna, segurtasun pertsonalari eta ingurumenari buruzko arauak betetzea...



3. unitate didaktikoa: ELEMENTU METALIKOAK KONFORMATZEA

Iraupena: 50 ordu

IE4: Egiturazkoak ez diren elementu metalikoetan izandako deformazioak identifikatzen ditu, eta konponketa-metodoa hautatzen du planteatutako deformazioaren arabera.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Mantendu beharreko material mota identifikatzeko erabiltzen diren metodoak eta saiakuntzak, eta haren osaera eta propietateak deskribatzea.
2. Karrozerian izandako deformazioak eta kalteak identifikatzea, diagnostiko-teknikak aplikatuta (ikusizkoa, ukipenezkoa, lixatzea eta silueta-orrazia, besteak beste).
3. Elementu finkoak konformatzeko erabiltzen diren ekipoen eta erreminten ezaugarriak eta erabilera azaltzea, haien propietateak kontuan izanda.
4. Mailatuak kentzeko erabiltzen diren prozesuak deskribatzea (txapa tenkatu, bildu eta erreparatzea).
5. Metalezko elementuetan deformazioak konpontzea, ezaugarriak, formak eta irisgarritasuna kontuan izanda.
6. Gauzatutako eragiketen bidez jatorrizko formak eta ezaugarriak leheneratu direla egiaztatzea.
7. Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko arauak betetzea.

EDUKIAK		Multzoak					
		1	2	3	4	5	6
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Diagnosi-eragiketak egitea (ikusizkoa, ukipenezkoa, lixatze bidezkoa, silueta-orrazi bidezkoa, erregela bidezkoa...). • Kaltearen garrantzia ebaluatzea eta konponketa-metodoa hautatzea. • Konpondu beharreko materiala, konponketa-teknika edo aplikatu beharreko tratamendu termikoak identifikatzea. • Txapa konformatu edo erreparatzeko eragiketak egitea, mailukatze, tenkatze, soldadura eta inertzia-mailu... bidez. • Konformazioa egiaztatzea. 				X		
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Deformazioak diagnostikatzeko teknikak (ikusizkoa, ukipenezkoa, silueta-orrazikoa); deformazioaren hedadura eta kokapenaren arabeko diagnosia. • Kalteak sailkatzeko metodoak. • Altzairuzko txapa konformatzeko teknikak: metalezko materialak erreparatzeko teknikak (hala nola, mailukatzea, tenkatzea eta biltzea). Altzairuzko txapak konformatzeko berariazko erremintak eta ekipoenak. • Beroa aplikatuta txapa biltzeko teknikak. • Aluminioa konformatzeko teknikak: materiala berotzea. Konformatzeko berariazko erremintak. Aplikatzen diren lan-metodoak, eta tratamendu mekaniko eta termikoak. • Konponketa egiaztatzeko teknikak. • Prozesuekin lotutako segurtasunari eta ingurumenari buruzko arauak. 				X		



JARRERAZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> • Arreta erabilitako erremintak, tresnak eta makinak kontserbatzean. • Eragiketak egiteko doitasuna. • Lanak egiteko ezarritako epeetako konpromisoa. 											
JARDUERA					METODOLOGIA			BALIABIDEAK					
ZER egingo du dan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den						
			Ir.	Ik.									
J1. Azalpena, deformazioak diagnostikatzeko teknikei eta kalteak sailkatzeko metodoei buruzkoa.	1-2	2 h	X		Irakasleak kontzeptuak azalduko ditu txapa-kalte bat konformazio bidez konpontzean eragina duten kontzeptuzko edukien inguruan. Altzairuzko eta aluminiozko txapetarako lan-prozesuen eta tratamenduen bereizketa azpimarratuko da.	Altzairuzko eta aluminiozko txapazko karrozeriak konformazio bidez konpontzeko prozedurak ezagutzeko.	Teoria-eskoletarako gela. Irakasleak berariaz prestatutako ikasmateriala: liburuak, fotokopiak, DVDak, VHS bideoak, Internet, etab. Altzairuzko eta aluminiozko txapazko karrozeriak konformazio bidez konpontzeko berariazko produktuak, erremintak eta tresnak.				X	X	X
J2. Azalpena, altzairuzko eta aluminiozko txapa konformatzeko teknikei buruzkoa.	3-4	6 h	X		Irakasleak kontzeptuak azalduko ditu txapa-kalte bat konformazio bidez konpontzean eragina duten kontzeptuzko edukien inguruan. Altzairuzko eta aluminiozko txapetarako lan-prozesuen eta tratamenduen bereizketa azpimarratuko da.	Altzairuzko eta aluminiozko txapazko karrozeriak konformazio bidez konpontzeko prozedurak ezagutzeko.	Teoria-eskoletarako gela. Irakasleak berariaz prestatutako ikasmateriala: liburuak, fotokopiak, DVDak, VHS bideoak, Internet, etab. Altzairuzko eta aluminiozko txapazko karrozeriak konformazio bidez konpontzeko berariazko produktuak, erremintak eta tresnak.						
J3. Azalpena, konformazio bidezko konpontzea egiaztatze teknikei buruzkoa.	2-6	2 h	X		Irakasleak kontzeptuak azalduko ditu txapa-kalte bat konformazio bidez konpontzean eragina duten kontzeptuzko edukien inguruan. Altzairuzko eta aluminiozko txapetarako lan-prozesuen eta tratamenduen bereizketa azpimarratuko da.	Altzairuzko eta aluminiozko txapazko karrozeriak konformazio bidez konpontzeko prozedurak ezagutzeko.	Teoria-eskoletarako gela. Irakasleak berariaz prestatutako ikasmateriala: liburuak, fotokopiak, DVDak, VHS bideoak, Internet, etab. Altzairuzko eta aluminiozko txapazko karrozeriak konformazio bidez konpontzeko berariazko produktuak,						



							erremintak eta tresnak.
J4. Erakustaldia eta praktika gidatuak, konformazio-eragiketak egitekoak (kalteak ebaluatuko dira, eta materialak eta egindako eragiketak diagnostikatu eta egiaztatuko dira).	5-6-7	7 h	X		<p>Irakasleak, lantegiko pieza txikiekin erakustaldi txikien bidez, konformatzeko makinak eta erremintak nola erabili behar diren azalduko du: eskuzko erremintak (adibidez, tasak, mailuak, palankak...), tresna pneumatikoak eta hidraulikoak (esaterako, katu linealak edo matxardakoak eta funtzio anitzeko makina).</p> <p>Batez ere kaltearen tamaina eta kokapenagatik topa daitezkeen egoeren sorta zabala azaltzen saiatuko da.</p> <p>Kontuan izan behar da egoeren kasuistika oso zabala dela eta unitate honetan emateko denbora mugatua dela.</p>	Konponketa mota hauetan lan egiteko modua ezagutzeko, eta aipatutako konponketak gauzatzeko berariazko erremintak eta tresnak nola erabili behar diren ulertzeko.	Altzairuzko eta aluminiozko karrozeriak txapa-konformazio bidez konpontzeko berariazko makinez, erremintez eta tresnez homitutako lantegiak, eta ibilgailu bakoitzari dagokion dokumentazio teknikoa.
J5-E1. Praktika autonomoa, konformazio-eragiketak egitekoa (aurretiaz eragiketa hauek egingo dira: kaltea begiz diagnostikatzea, haren garrantzia ebaluatzea, konpondu beharreko materialak identifikatzea eta egindako konformazio-lanak egiaztatzea.	5-6-7			X	<p>Ikasleek, banaka, irakasleak prestatu beharreko gero eta zailtasun handiagoko praktikak egin beharko dituzte.</p> <p>Praktika guztiak bukatu ondoren, ikasleek altzairuzko txapa hotzean eta beroan konformatuko dute, irisgarritasun egokiko eta zailko egoeretan.</p> <p>Gainera, aluminiozko txapan gutxienezko konformazio-praktika bat egin beharko dute.</p>	Gai izan daitezen, kasuak kasu, txapa-konformazio bidez karrozerien deformazioak konpontzeko metodo egokia hautatzeko eta eragiketak trebetasunez egiteko, segurtasun pertsonalari eta ingurumenari buruz indarrean dauden arauak errespetatuz.	Altzairuzko eta aluminiozko karrozeriak txapa-konformazio bidez konpontzeko berariazko makinez, erremintez eta tresnez homitutako lantegiak, eta ibilgailu bakoitzari dagokion dokumentazio teknikoa.
- Deformazio txikiak konpontzea, eskuzko erremintekin eta irisgarritasun egokiaz.		10 h					
- Deformazio txikiak konpontzea, eskuzko erremintekin eta irisgarritasun		7 h					



<p>zailaz.</p> <p>- Funtzio anitzeko makinaren bidez deformazio txikiak konpontzea.</p> <p>- Aluminiozko txapan deformazio txikiak konpontzea.</p>		7 h					
<p>E2. Ikasleen berariazko ebaluazio-jarduera, banaka egin beharreko azterketa teorikoaren bidez.</p>	1-2-3-4-7	3 h		X	UD1ean eta UD2an adierazi bezala, jarduera honen bidez, ikasleek UD1, UD2 eta UD3 unitate didaktikoetan lortutako ezagupenak ebaluatuko dira.	Gelakide bakoitzak bameratutako ikaskuntza-maila eta irakaskuntzak kontrolatzeko.	Kontrol-jarduerak egiteko behar adinako azalera izango duen gela. Azterketako galdera sorta.
OHARRAK							
<ul style="list-style-type: none"> Jarduera horiek gauzatzeko lantegiko ordu ugari behar badira ere, gure ustez UD honetan azaldutako irakaskuntzak bameratu ahal izateko erarik onena da. Eragiketak eginez hobeto ulertzen dira aurretiaz errazak diruditen zereginen dituzten zailtasunak. UD honetan, gure ustez, ikasleak lortzeko gai diren eragiketak egiteko trebetasuna unitatearen karga teorikoa ulertzea bezain garrantzitsua da behinik behin. 							



4. unitate didaktikoa: ELEMENTU METALIKOAK SOLDATZEA

Iraupena: 39 ordu

IE5: Elementu finkoak ordezkatzeko teknikak aplikatzen ditu eta, horretarako, lotura-metodoak lotu beharreko elementuekin erlazionatzen ditu, erresistentzia-ezaugarrien arabera.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Karrozeriak konpontzeko erabiltzen diren soldadura-sistemak (MIG-MAG, MIG-Brazing, aluminioarako sinergikoa eta puntuzkoa, besteak bestea) eta kontuan hartu beharreko parametroak deskribatzea.
2. Soldadura bidezko loturak egitea, ibilgailuaren fabrikatzailearen eta erabilitako makinaren zehaztapen teknikoak kontuan izanda.
